

Bero-beroan

“Eurobisioa” hizkuntza gutxituetan

SUEDIAKO LULEA HERRIAN egingo dute Europako hizkuntza gutxituetako Liet Lavlut (www.liet.nl) musika lehiaketa. 2002an egin zen lehen jaialdia eta urriaren 18koa bosgarrena izango da. Europako edozein hizkuntza gutxituetan aritzen diren bakarlarari zein taldeek har dezakete parte eta maiatzaren 1a baino lehen aurkezteko eskatu dute. Antolatzailerik urriaren 18rako hamar-hamabi talde hautatuko dituzte finalerako. Era-gileen nahia jaialdia Europako telebista publikoen bidez ahalik eta gehien hedatzea da, azken edizioa bost herrialdetan emititu zen, ez dakigu EITB tartean izan zen, baina ez litzateke txarra izango urrirako erne ibiltzea. Lau ediziotatik hiru samiek irabazi dituzte, eta 2006an Garik hartu zuen parte eta hamaikagarren geratu zen.

New Yorken arrotz

TONI MOLLÁ kazetariak gipuzkoakus-kara.net webgunean, Chang-Rae Lee hego korearraren *Native Speaker* (Ama hizkuntzan) liburua ekarri digu gogora. Duela urte batzuk argitaratu eta hainbat sari irabazi duen liburuko protagonista New Yorken bizi da, etorkina da eta identitate berria aurkitzen saiatzen ari da. Arrotz sentituko da, ordea, etxe orratzen hiri konplexuan. Molláren gogoko da liburua, eleberririk hartzen duen eremu geografikoa, New York, gaintzen duen balio unibertsaleko edukia duelako. Liburuaren pasarte batean hala dio Lee idazleak: “Toki liluragarri horietan sartzeko, iritsi berriek oinarritzko latina ikasi behar dute. Beren antzinako hizkuntzak isilarazi, ezpainak moteldu. Estatu Batuetako hirien garrasi heterogeneoak entzun”. Eta haxe Mollák egindako

hausnarketa: “Komenigarria litzateke, alarmismo gehiegirik gabe, gure hizkuntzen lokalismo (edo beste gabe, baserritarkeria) gero eta handiagoaz hausnartzea, eta zergatik baztertuak izan diren zeregin urbano eta globaletatik. Zer leku dugun herri globalean eta zergatik gauden (des)konektaturik munduko sare soziolinguistikoetatik”.

Elkarlana, azkenean

ZORTZI URTEZ, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dute harreman ofizialik izan hizkuntza politika kontuetan. Berriki, Jaurlaritzako Kultura sailburu Miren Azkarate, HPSko sailburorde Patxi Baztarrika, Nafarroako Hezkuntza kontseilari Carlos Perez-Nievas eta Euskararen Nafar Institutuko zuzendari Xabier Azanzak bilera egin dute euskararen hainbat alorretan elkarlana abian jartzeko.

TALAIAN

Iruzur fiskalengatiko miaketak

Aurreko astean jakitera eman denez, Alemaniako fiskaltzak mila aberatsen etxe, egoitza eta bulegoak miatu ditu. Aberatsok fundazioen bidez Liechtensteingo paradisu fiskalera kapital ihesa egitearen susmopean daude. 4.000 milioi eurotara iritsi liteke iruzurra. Beraien banku nagusietariko baten sailak ere miatu dira München, Dresdner Bankena hain justu, honek ere zerga iruzurrarekin harremana izan dezakeelakoan. Aldi berean, Frankfurtoko beste banku batzuen eskumendekoak ere miatu dira. Deutsche Post partzuergo logistikoko lehendakaria atxilotu dute. Eta finantza arloko goi mailako beste pertsona batzuk ere ikertzen ari dira, kirolari eta ikuskizunei lotutako batzuekin batera.

Ona izango litzateke euskal agintaritzak fiskalak alemaniarren eredua jarraitzea. Ezkutuko ekonomiak 9.600 milioi euroak gaintzen ditu EAEn, hau da, 2003ko barne produktu gordinaren %20a, EHUK eginiko ikerketaren arabera. Hego Euskal Herrian, sindikatuak salatzen dutenez, “langileen errenten arpilatzeko fiskala gertatzen ari da, horiek baino ez baitituzte ordaintzen zergak”. ELAK dioenez, oso gogorra da langileen soldatek barne produktu gordinaren %48a baino ez ordezkatuta, PFEZren %85a jartzea, errentaren %52a jasotzen dutenek zergen %15a baino ez dutenean ordaintzen. Zerga iruzurraren aurka egiten dela argudiatzen da. Bizkaiko Foru Aldundiak 2003ko uztailetik 874 milioi eurotako zerga iruzurra argitara eman duela dio. Baina egia bestelakoa da eta enpresa, enpresari, higiezin eta eraikuntza enpresa, notario, abokatu, aholkulari, mediku, dentista eta gainerakoek lapurtutako guztia berreskuratzetik oso urrun daude. Euskal agintaritzak politikoa eta fiskalera badakite hori guztia ustelkeriaren izebergaren tontorra besterik ez dela. Eta badakite non dagoen iruzurra.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Aitor Aranak Berrian esanak: “Askotan entzuten diegu Nafarroan agintaririk euskara batua kanpoko gauza dela, artifizialkeria, Gipuzkoatik ekarria. Eta, ez, euskara batua oso ondo eginda dago, jende zentzudunak egin zuen. Erdiguneko hizkerak erabiliz sortu zen euskara batua. Eta erdiguneko dago, bete-betean, Nafarroa Garaia. (...) Hemen, hainbat sasijakintsuk esan izan dute Iruñean ez dela euskaraz egin. Hori gezurra da. Eta, gainera, nire pozerako, bertako euskalkia gaur egungo euskara batuaren oso antzekoa da”.

Maria Jose Azurmendik elebitasunaz Diario de Noticiasen esanak: “... euren artean geroz eta asimetria handiagoa dagoen heinean; statusari, botere mailari edota hitzun kopuruari dagokionez bien arteko aldea geroz eta handiagoa den heinean, hizkuntza txikiaren alde lan handiagoa egin beharko da. Helburua ahalik eta berdintasun handiena, elebitasun edo eleaniztasun ahalik eta orekatuena lortzea bada, hizkuntza txikiaren indartu behar da, nagusia beti emango delako. Erantzukizuna azken horrena da bereziki”.